

## MUNDUAN, NONBAIT...

"Munduan, nonbait" leloak, gure errealitate haratago imajinatzeraz, behatzeraz, pentsatzeraz, amets egiteraz gonbidatzen gaitu. Gure mundua esploratu, ulertu eta hobetzeraz animatzen gaitu, eskolatik, taldeetatik, familiarik, parrokiatik... Inoiz galdetu al diozu zeure buruari nolako den bizitza planetako beste leku batzuetan? Ba al zenekien munduko txoko bakoitzak bere historia, kultura eta erronka bereziak dituela? Kanpaina honetan herrialde, kultura eta tradizio ezberdinei buruz ikasteko aukera izango dugu. Pertsonak beste leku batzuetan nola bizi diren ikertu eta deskubritu ahal izango dugu. Zure herrialdetik irten gabe bidaiatzea bezala da!

Baina kontua ez da soilik beste errealitate batzuk ezagutzea, baizik eta gure ingurunea hobetzeko zerbait egitea. Arazo garrantzitsuak konpontzen lagunduko diguten proiektuetan parte hartu ahal izango dugu. Arazo benetan larriak: jatekorik ez izatea, ikastetxera joateko aukerarik ez izatea, naturaren egoera larria, mutilen eta nesken arteko aukera ezberdintasunak, herrialde batzuen eta besteen arteko errespetatu ezak sortzen dituen arazoak... Gure ekintzak, txikiak badira ere, mundu osoko pertsonengan eragin dezakete.

Gainera, gure pertsonaiei eta Itaka Escolapios-i esker, beste leku batzuetara birtualki bidaiatu ahal izango dugu, kultura eta herrialde ezberdinetako lagun berriak ezagutzeko. Beraingandik ikasi ahal izango dugu, gure esperientziak partekatu eta ezberdinak garen arren, gauza askotan berdinak garelako ikasi.

Gogoan izan gutako bakoitza txikitatik aldaketarako eragile izan daitekeela. Beraz, esploratu, ikasi eta gauza sinestezinak egingo ditugu elkarrekin! Nork daki? Agian, munduan, nonbait, aldaketak eragingo ditugu eta etorkizun hobe baterako lehen pausoak emango ditugu. Aurrera, aldaketaren abenturazaleok!